

Bigarren mailako puntuazio- marken azterketa: Koldo Mitxelenaren liburu- eta zinema- kritiketako enuntziatu parentetikoan muga grafikoak

AGURTZANE AZPEITIA EIZAGIRRE

Mondragon Unibertsitatea

ELIXABETE PEREZ GAZTELU

Deustuko Unibertsitatea

1. Gaia kokatzeko sarrera

Lan hau ikerketa zabalago batean oinarritzen da, *Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak* (Azpeitia 2010) doktore-tesiko atal batean, hain zuzen. Artikulu honetan, Koldo Mitxelenak bere diskurtsoaren ezaugarritzaile diren enuntziatu parentetikoak diskurtsoan txertatzeko erabiltzen dituen puntuazio-markak izango ditugu azterkizun; zehatz esan, «bigarren mailako puntuazio-marketako» koma, marra eta parentesi pareak.¹

Puntuazioa da, funtsean, edozein testu idatziren egituraren euskarri nagusietakoa (Perez Gaztelu, Zulaika eta Muñoa 2011) eta puntuazio-markek osatzen dute, hain zuzen ere, enuntziatu parentetikoak corpusean identifikatzeko formazko irizpide agerikoena.

Horrez gain, uste dugu «bigarren maila edo graduako» puntuazio-marken erabilerari buruzko hausnarketa (Mitxelenaren euskarazko idazkeran oinarritutako hausnarketa) euskara estandarren idazkeraren finkatzeko bidean lagungarri gerta daitekeela, ikusirik, bereziki, hutsune handia dagoela diskurtsoaren linealtasuna hausten duten egiturak enmarkatzeko puntuazio-ikurren gaineko azterketen bibliografian.

1. Bigarren mailako markak dira, halaber, modalitatearen adierazleak (galdera eta harridura-markak eta etenpuntuak) eta bigarren diskurtsoa txertatzekoak (hemen aztergai ditugun ondoan, parentesi zuzenak eta aipu-markak ere bai). (Perez Gaztelu, Zulaika 2012: 140).

Puntuazioa lantzeko erabilitako euskarriak, oro har, gramatika liburuak, estilo liburuak, idazkera liburuak, ortografia liburuak eta hiztegiak izan dira,² baina ez dago euskal hiztun-idazleen bigarren graduako puntuazio-jardunaren deskripziorik. Beraz, Mitxelenaren euskarazko idazkeran oinarritutako bigarren mailako puntuazio-marken, puntuazio-joera nagusien ildo nabarmenen lan deskribatzaile honen bitartez gure aletxoak ekarri nahi diogu komunikazio idatziaren ikerketari.

Helburu horretara iristeko, Koldo Mitxelenaren liburu- eta zinema-kritiketarik ateratako adibideez³ baliatuko gara.

- Hasteko, labor-labor, «enuntziatu parentetikoak» hesitu eta definituko dugu, aztergai ditugun puntuazio-markak egitura horiek inguratzeko erabiltzen baititu Mitxelenak. Horrekin batera, puntuazioa aztertzeko hautatu dugun ikusmoldeaz hitz erdi bat esango dugu.
- Jarraian, corpuseko adibideak izango ditugu azterkizun eta saiaturako gara ikusten bigarren mailako puntuazio-ikurren artean (koma, marra eta parentesien artean) alderik ba ote dagoen. Hau da, Koldo Mitxelenak bere testu idatzietan parentesiak marretatik edo kometatik bereizteko irizpiderik ba ote zuen argitzen ahaleginduko gara. Horri erantzun

2. Perez Gaztelu, Zulaika eta Muñoak (2011) puntuazioari buruz euskaraz dagoen bibliografiaren berri jasotzean diotenez, Euskaltzaindiak ez du berriaz puntuazioari buruzko araurik edo lan berezirik plazaratu, nahiz eta, 0. arauan, Ortografiarenean (Mitxelena 1968: 7), badagoen puntuazioari buruzko erreferentzia bat. Euskarazko estilo liburu batzuetan —ez guztietan (Alberdi, X. eta Sarasola 2001)— arras landu dute puntuazioa modu batera edo bestera: komunikabideenetan: Euskaldunon Egunkaria (1992, 19952), Berria (2006), administrazio publikoan (HAEE-IVAP 2005).

Ildo beretik, puntuazioa lantzen duten gramatika liburuak (Alberdi 2008) eta idazkera liburuak ere aipatzen dituzte (Zubimendi eta Esnal 1993; Ezeiza, Lekuona eta Altuna 1995; Garzia 1997). Eta, eskolako testu-liburuak eta alde batera utzita, bestelako artikuluen berri ere ematen dute: Garzia (1996), Arrieta (1997), Odriozola (2005), Roque (2008, 2009)... Hala ere, kopuruari begira, ezin esan daiteke literatura oparoezia dagoenik euskaraz puntuazioari buruz. Are gutxiago euskal hiztun-idazleen puntuazio-jardunaren deskripziorik.

3. Azpeitiak (2010) tesian azterkizun izan duen *corpusa* Koldo Mitxelenaren kritikak izan dira, liburu- eta zinema-kritikak (edo iruzkinak), Euskal Editoreen Elkarteak kaleraturiko *Klasikoen Saileko* 21, 22 eta 23 zenbakiak dituzten liburuxketan jasotakoak.

Puntuazioari ere zuzen-zuzen eragiten dionez gero, edizioen arteko konparazioa egitea ezinbestekoa zuen.

«Bigarren graduako puntuazio-markak enuntziatu parentetikoak demarkatzeko bitarteko ditugunez, oso kontuan izatekoa da horiek beti ongi aldatuta ote dauden ikustea; baita diskurtso mailako (lokailuren bat edo falta den, esaterako) nahiz, oro har, gramatikazko aldaketarik (aditz morfologia gaurkotzeaz landako aldaketarik, alegia) ba ote dagoen azterzea. Egon balego, noski, egilearen jatorrizko formari emango genioke lehenetsuna». (Azpeitia 2012:12). Erkatze-lana enuntziatu parentetikoei dagokien heinean soilik egin dugu. Hauexek puntuazioari dagozkion aldaketak:

- a) Parentesien ondorengo koma; jatorrizkoan egonik argitaraldi gaurkotuan falta da.
- b) Marren ondorengo koma; jatorrizkoan egonik argitaraldi gaurkotuan falta da.
- c) Aipu-markak: argitaraldi gaurkotuan besteren aipuak enuntziatu parentetikoak eteten dituenean parentetikoaren bi aldeak aipu-markez adierazten ditu, jatorrizkoan, aldiz ez.
- d) Enuntziatu parentetikoaren demarkazio grafikoari dagokionez, adibide batean, jatorrizkoak enuntziatu parentetikoaren adierazle koma bikoitza jartzen bazuen ere, argitaraldi gaurkotuan bukaerako koma puntu bihurtu dute.

Erkaketa honetatik enuntziatu parentetikoei berriaz eragiten dieten aldaketak besterik ez ditugu aldatu. Aldaketa horiek hushkeriatzat jotzen ez ditugunez gero —ez baitira grafiari eta huts-kontuei dagozkienak—, eta egileari edo testugileari zor diogun leialtasunagatik jatorrizko forma hobetsi dugu.

nahi izateak eraman gaitu irizpide batzuk zehaztu eta irizpide horien arabera bigarren maila edo graduako puntuazio-markak aztertzea.

2. Enuntziatu parentetikoa

Enuntziatu parentetikoak —tipografikoki marren, parentesien nahiz intzisoko komen artean irudikatzen ditugun segidok— aztertzeke, bereziki, Enuntziazioaren Hizkuntzalaritzan oin hartu dugu (Azpeitia 2010, 2012). Ikuspegi hori hautatu dugu berariaz oinarritzen delako esatariak diskurtsoan uzten dituen lorratzetan. Eta enuntziatu parentetikoak ere, labur esateko, esatariak norentzakoari⁴ bere asmoak erdiesteko egiten dizkion keinu edo arrastoak dira, testutik bertatik mezuaren interpretazioa (nora)bideratu eta gidatzeko lagungarriak. Norentzakoarekin konplizitatezko harremana sortzeaz gain, parentetikoek bere enuntziatua modalizatu, birformulatu eta testuinguratzen dute eta balio diote saiatzeko harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena egon dadin eta diskurtsoaren argudio-hariak eta interpretazioak esatariak nahiko zukeen bidetik jarrai dezaten.

Beraz, enuntziatu parentetikoek testutik bertatik diskurtsoa nola interpretatu behar dugun adierazten digute eta egitura hori inguratzen duten puntuazio-markek ere helburu horretara iristeko jarraibideak ematen dizkigute.

Esan dugunaren adierazgarri, hona hemen adibide bat. Letrakera lodiz paratu dugu enuntziatu parentetikoa (E2) eta letrakera arruntaz oinarritzko enuntziatua (E1):

(1) Nik —**eta barka bekit «izenordain higuingarri» honez hasten banaiz mintzatzen**— profeta baten gisan ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula —**aldiz bizidun, aldiz okotz soil**— agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB⁵ II:117).

Adibideak erakusten digu egitura hau bigarren mailako puntuazio-markez (komak, marrak eta parentesiak) demarkatuta egoteaz gain, ondorengo lau ezaugarri hauek bete beharko dituela:

- A) Gutxienez bi enuntziatu izango ditugu jokoan: E1 eta E2 enuntziatuak.
- B) Bi enuntziatu horiek beregainak edo independenteak dira.

4. Kerbrat-Orecchioni (1986), Enuntziazioaren Hizkuntzalaritzaren barnean kokatu ohi den autorea, hartzaile-norentzakoaren konplexutasunaz jabetzen da. *Norentzako*a diogunean honako hau adierazi nahi dugu: esatariak mezua igortzean gogoan duen gizabanakoa; norentzat egiten duen bere mezua, alegia. Honekin txandakutzen ditu esatariak bere zereginak. Esatariak berariaz hautatzen du, buruan duen norentzako hipotetikoa da, izan ere.

Norentzako terminoa Escandellentzat (1993) ere ez da erabat *hartzailearen* parekoa. Norentzakoak bakar-bakarrik gizabanakoak izendatzen ditu, ez deskodetze-mekanismoak, esate baterako. Norentzako ez da, bestalde, entzule soila, entzulea hizkuntza-kode jakin bat aditzeko gaitasuna duen edonor baita; norentzako, berriz, mezua igorri zaiona (esatariak gogoan duena) eta, beraz, komunikazioa (eta esatariaren diskurtsoa) baldintzatuko duena da.

5. LIB eta ZIN laburdurak erabiliko ditugu, hurrenez hurren, liburu- eta zinema-kritikak izendatzeko.

C) Bi enuntziatu horiek elkarrekin gurutzatzen dira, eta oro har, E2 enuntziatuak E1 enuntziatuaren egitura sintaktikoa hausten du.

D) E2 enuntziatuak dakarren informazioa makroegituran (edo metadiskurtsoan) kokatzen da.

Azkenengo ezaugarri horrekin esan nahi da enuntziatu parentetikoak komunikazio-trukean hertsiki uztartuta dauden osagai oinarrizkoen zuzentzen zaizkiela: esatariari (modalizazio eta enuntziatio mailakoak nahiz argudiatzearen garapenean eragiten dutenak, esaterako), norentzakoari (esatari-norentzakoaren arteko interakziozko harremana bideratzeko balio dutenak⁶) eta testuinguruari (esatari-norentzakoek batean dituzten ezaupide-sinesmenek osatzen duten informazio pragmatikoaren errota abiarazteko baliagarriak direnak). Beraz, *dictumari* edo proposiziozko egiturari baino gehiago eragiten diote makroegiturari.

Bigarren mailako puntuazio-markez demarkatuta egote hori bihurtzen zaigu lan honetan arretagune. Ez dugu ukatzen perpaus bazterreko⁷ posizioan bistan agertzen ez den digresiorik, modalizatzailearik, edo birformulazioarik ez dagoenik. Egitura hauek agertzeko modu bat baino gehiago egon daiteke, baina guk berariaz, enuntziatu parentetiko gisa agertzen direnei soilik erreparatuko diegu. Eta horretarako ezinbestekotzat jotzen dugu puntuazio-demarkazio jakinekin, esatariak intentzio osoz, perpaus bazterreko posizioan kokatuta agertzea.

3. Puntuazioa

Puntuazioa bera zer den, zein egiteko dituen, non eta nola sailkatzen den... ikertzaileak bat ez etorriagatik, inork ez du ukatzen testuaren osagai ezinbestekoa dela (Perez et al. 2012).

Puntuazioaren eginkizuna azaltzeko, tradizionalki, bi joera nagusitu izan dira (Catach 1980, Cassany 1993, 1997, Garzia 1997, Roque Eguzkitza 2008). Ahozko irakurketa bideratzeko eta gidatzeko instrukzioak edo direlakoena; hots, irakurleari arnasa noiz hartu behar duen eta geldiuneak noiz egin behar dituen adieraziko dioten demarkazio-sistematzat jotzen duena. Eta bestetik, puntuazioa testuaren unitate sintaktiko, logiko nahiz diskurtsiboak demarkatzeko zeinu-sistematzat jotzen duena.

Gure ikusmoldea puntuazioa aztertzeke honelakoxea da: puntuazioak ahozko kodearekin, prosodiarekin duen harremana ukatu gabe, testuaren egituraketarako eta antolaketarako balio duen marka-sistema da testugilearentzat, eta mezuaren ulermenerako lagungarria irakurlearen-

6. Aldatu dugun adibidean, lehenengo enuntziatu parentetiko bera izango litzateke esatariaren eta norentzakoaren arteko interakziozko harremanaren seinale.

7. «Perpaus bazterra» deizioa erabili dugu Fuertes Rodríguezek (2007) darabilen «periferia oracional» deizioa itzultzeko. Autore honek enuntziatu batean (eta, beraz, ez soilik perpaus batean) ager daitezkeen osagai guztiak sistematizatzeko ahalegina egin du lan horretan, perpaus bazterreko osagaiak perpaus barnekoekin osaturik:

«Se crean en el enunciado otras funciones, otros huecos sintácticos, que no pertenecen a la oración, sino que envuelven la predicación y dan cabida a otras informaciones, procedentes de diferentes niveles comunicativos. Surge así lo que muchos llaman la periferia oracional, los complementos externos o marginales de la oración.» (Fuentes 2007:11).

tzat. Testuaren egituraren eta testuaren ulerterraztasunaren eta idazlearen kezka estilistikoan ispilu aukerakoa ere bada puntuazioa (Calsamiglia eta Tusón 1999).

3.1. Bigarren mailako puntuazio-markak

Enuntziatu parentetikoak testuetan txertatzeko, idazleek bigarren mailako puntuazio-ikurretara jotzen dute: intzisoko bi koma, marra nahiz parentesietara («*marques de second régime*»), «enuntziatio-markak» Catach (1980: 22).

Les signes d'énonciation forment également un sous-système séparateur, marquant une distanciation de plus en plus grande des divers plans du discours: la séparation se fait ici non entre les segments de la chaîne syntaxique principale (segments intrasyntactiques), mais entre les locuteurs ou points de vue, présents dans la situation de communication (segments intersyntactiques), ce que R. Laufer appelle la marque d'un «*second régime*» ou niveau de discours: incises, parenthèses, crochets, marques de régie (dans les scénarios et les pièces de théâtre par exemple), deux-points, guillemets, tirets, alinéas, usage de l'italique, etc. (Catach 1980: 22).

Guk ere ikur horiei erreparatuko diegu; zehatz esan, koma pareari, marrei eta parentesiei, hauek baitira diskurtsuaren linealtasuna hausten duten egiturak islatzeko baliabide grafiko nagusiak.

Estilo-liburu guztiek —edo ia guztiek— lantzen dituzte puntuazioaren alorrean marrak, parentesiak eta intzisoko komak, baina gehienbat erabileren inbentario txiki bat egitera lerratzen dira, eta, oro har, sail berean sartzen dituzte hirurak, euren arteko bereizketarik egin gabe (Onieva Morales 1992, Esnal eta Zubimendi 1993, De la Fuente González 2005, 2006, IVAP 2005, Roque Eguzkitza 2008, 2009).

Erantzun erabatekorik ezean, itxura batean, idazlearen esku bide dago puntuazio-ikur parearen aukera; alegia, bi koma, bi marra, bi parentesi hautatzea adierazpidearen mugarri grafikoak izan daitezten.

Gu ahaleginduko gara Koldo Mitxelena idazlearen jokamoldea —liburu- eta zinema-kritiketako testu idatzietako jokamoldea— ispilatzen.

3.2. Bigarren mailako puntuazio-markak aztertzeo irizpideak

Gisa honetako puntuazio-marken artean Mitxelenaren diskurtsogintzan alderik ba ote dagoen ikusteko, marka bat erabili edo bestea erabili zerk arautzen edo baldintzatzen ote duen aztertzeo, erreparatuko diegu irizpide diskurtsibo eta morfosintaktikoei. Zehatz esan, irizpide hauek hartuko ditugu oinarri:

1. **Tipoa:** Parentetiko tipoak, E1 eta E2ren arteko koherentziatzeko harremana formalki gauzatzeko moduak, eragiten ote du puntuazio-marka bat edo bestea hautatzea? Ba ote dago enuntziatu tipoaren eta bigarren mailako puntuazio-marken arteko erlaziorik? Azken batean, enuntziatu tipoaren atzean bi enuntziaturen arteko harremana formalki

gauzatzeko modua dago. Eta tipo bakoitzaren barneko enuntziatu motak hobesten al du puntuazio demarkazioa? Esaterako, *eta* buruan daramatenetan antzematen ote da ikur baten aldeko joera? Estilo zuzenak zein ikur hobesten du?

2. **Osaera morfosintaktikoa:** Enuntziatu parentetikoaren osaera morfosintaktikoak baldintza ote dezake bera inguratuko duen puntuazio-marka? Esate baterako, aditza agerian gauzatu duten enuntziatu parentetikoak zein ikurren aldera lerratzen dira? Eta aditzik gabekoak?

Parentetiko tipoaren irizpidea izango da azterketa honetan funtsezkoa eta osaera morfosintaktikoa hor integratuko dugu. Enuntziatu parentetikoak (E2) oinarrizko enuntziatuarekin (E1ekin) betetzen duen harremanaren arabera, hiru enuntziatu parentetiko tipo bereizi ditugu (Azpeitia 2010):

A TIPOA: Oinarrizko enuntziatuaren (E1) eta enuntziatu parentetikoaren (E2) artean koherentziatzko harremana inferentzia bidezkoa da; hau da, tipo honetako bi enuntziatuen artean ez dago formazko baliabiderik (kohesiozko mekanismo agerikorik).

(2) Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honetaz jabetu *ez bagina ere —ez digu guzoi argitasun berbera eman Jainkoak: zinemagile izango ginateke bestela zinema-ikusle izan beharrean—*, astiro azaltzen digute azkenean «De rerum natura»-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

B TIPOA: Bi enuntziatuen arteko koherentzia kohesio-mekanismoek adierazten dute. Horren lekuko dira talde honetako enuntziatu parentetikoan bertan agertzen diren testu-mailako kohesio-mekanismoak: erreferentziatzko kohesio-mekanismoak eta konexio-mekanismoak.

(3) *Illiada inork itzuli nahi badu —eta izango da egun edo bihar egiteko larri horri ekingo dion euskaldun ausarten bat—*, aurkituko du laguntza Aita Barandiaranek egin duen lan izugarrian. (LIB I: 71).

C TIPOA: E1 oinarrizko enuntziatuaren eta E2 enuntziatu parentetikoaren artean harreman sintaktikorik egon ez arren, perpaus mailako marka sintaktikorik ager daiteke. Horrek ez du esan nahi, ordea, bi enuntziatuen artean perpausera lerratutako lotura sintaktikorik dagoenik; izan ere, marka formal horiek ez dute E2 enuntziatuaren E1 enuntziatuarekin josten, elipsian dagoen modalizazio- edo enuntziatio-mailako beste enuntziatu batekin baizik.

(4) *Suspense* gehiegirik gabeko gizon-hiltzea —*lehen hitzek salatzen baitute egilea—*, *baina* ari-men barrunbean ekaitz eta zurrunbiloak sortzen dituena. (LIB II: 130).

Behin irizpideak zehaztu ditugula, aztergai izan dugun corpusean atzemandako joera nagusiak laburbilduko ditugu.

4. Corpusean atzeman ditugun joera nagusiak

Tipo bakoitzaren barneko parentetiko motak zein puntuazio-markarekin agertzen diren aztertuko dugu. Taulez baliatuko gara tipoak eta ikurrak lotzeko.

4.1. A tipoa

A TIPOA	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
Modalitate-aldaketa	0	8	30	38
Estilo zuzena	5	27	7	32
Aditza daramaten enuntziatuak	31	42	13	86
Aditzik gabeko enuntziatuak: aposizio motakoak	30	43	13	86
Aditzik gabeko enuntziatuak: aposizio ez direnak	2	52	151	205
Liburu edo filmen itzulpen edo erdarazko ordainak	0	0	29	29
Hizkuntza mailako akatsak, hauen forma zuzenak, oharrak, horien jatorrizko gunea (orrialdea)...	0	0	107	107
Aurreko sintagma zehazteko balio dutenak	2	52	15	69
GUZTIRA	68	172	214	454
GUZTIRA % ZENBAT	% 14,98	% 37,89	% 47,13	% 100

Taulari erreparatuz gero, ohartuko gara E1en eta E2ren arteko harremana inolako marka formalik gabe gauzatzen denean, Mitxelenak gehiago jotzen duela parentesi eta marra bikoi-tzetara eta gutxiagotan koma pareta erabiltzera. Bereziki parentesietara jotzeko arrazoia izan daiteke E1 eta E2 enuntziatuen arteko haustura formal⁸ horietan handiagoa dela; hau da, bien arteko koherentziatzeko harremana inolako kohesio-baliabiderik gabe gauzatzen dela.

Goiko hipotesiak badu, aldeaz edo moldez, Mario Linaresek (1974) zioenarekin loturarik. Honen ustez, bigarren mailako puntuazio-ikurren arteko aldea harreman semantikoan dagoen graduazioaren arabera da. Autore horren arabera, izan ere, badira gaiarekin «analogiazko harremana» duten ideiak; badira «hurbileko harremana» dutenak; baita «urrutiko harremana»

8. Ikusi besterik ez dago A tipoaren barnean ere aposizioen arabera aditzik gabeko enuntziatuak direla parentesien artean gutxien agertzen direnak, eta hori, gure ustez, enuntziatu mota horretan marka morfologiko bera agertzeak bi enuntziatuen (E1 eta E2) arteko lotura sendoagotzen dutelako gertatzen da. Aitzitik, enuntziatu parentetikoak inolako lotura morfologikorik ez duten aditzik gabeko sintagmek osatzen dutenean, parentesien artean edo marren artean demarkatzeko joera izango du. Parentesia E1 eta E2 enuntziatuen arteko haustura-graduaren adierazlea bide da.

durenak ere, eta badira, azkenik, gai nagusiarekin —edo hari nagusiarekin, hobeto— inolako harremanik ez duten ideiak.

Ikuspegi hori ukatu gabe ere, gure ustez E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana formalki (inolako lotura formalik gabe, kohesio-mekanismoei esker edo marka (morfo)sintaktikoarekin) gauzatzeko moduan dago gako.

Goiko laukian ikus dezakegu tipo bakoitzaren barnean eredu ezberdinak daudela. Ego-kiena, apika, eredu guztiak xehe-xehe aztertzea balitz ere, luzera-mugak eraginda, puntuazio-markaren arabera bilduko ditugu corpusean atzeman ditugun joera nagusiak.

4.1.1. Parentesiak

Koldo Mitxelenaren liburu- eta zinema-kritiketan parentesiek erabilera espezializatua daukate. Hona hemen, Mitxelenaren luman parentesien erabilera nagusitzen diren joerak:

1. **Haustura maila zenbat eta nabarmenagoa orduan eta parentesien erabilera handiagoa** sumatu dugu. A tipoa aurkitu ditugu adibide gehien, bi enuntziatuen arteko koherentziazko harremana ez delako kohesio-mekanismoz gauzaten.
2. **Modalitate-aldaketa** aditzera ematen duten enuntziatu parentetikoetan, oro har, parentesiak darabiltza. Horietan esatariaren eta enuntziatzailearen arteko desberdintasuna nabarmena da: esataria E2 enuntziatu parentetikoaren enuntziatzailea da eta E1 oinarritzko enuntziatuko enuntziatzailetik desberdintzen da. Beraz, bi enuntziatuen arteko haustura nabarmena da eta koma soilak eskas gertatzen bide zaizkio Mitxelenari.

(5) Baina kopet harro ez direnek (**ez garenek?**) ez dute damu izango ikustera joana. (ZIN: 124).

(6) Inákik eta Begoñak seme bat dute: «el» Txantxo (**ze izen arrano ote da hori?**). (ZIN: 133).

Bada, ordea, marren arteko adibiderik ere:

(7) Irakurgai hori ez da sasikoa, badu bere jabea. Eta ezin alda daiteke jabearen baimenik gabe zenbait huskeriatan —grafian, huts nabarrietan— izan ezik. Are gutxiago egilea —**nolakoa, gero!**— hilik dagoenean. (LIB I: 79)

3. **Ohar bibliografikoak.** Oso ohikoa da libururen baten erreferentzia bibliografikoa eman behar duenean parentesietara jotzea.

(8) Eta Islandiako bazterretan 1600 inguruan entzuten zuten euskara (**ikus N. G. H. Deen, *Glossaria duo Vasco-Islandica*, Amsterdam, 1937**), gipuzkoarrak ere han gehiegixko nabarmendu zirela dakigularik, Lapurdikoa zen, dudarik gabe. (LIB II:57).

(9) Honako bertso honetan (***Manual Devotionezkoa*, I, 30**), beste askotan bezalaxe, nori berea ematen dio burjesari (sic) (ontzi-jabeari), buruzagiari (patroiari) eta pilotuari, elizaren ontziaz ari dela. (LIB II: 57).

a- Data-tarteak jasotzeko

(10) Ez da, beraz, bestek esana berresaten ari, berbera baita gai horrezaz lan sakon bat argitara zuena erdaraz: *La Sierva de Dios M. Angeles Sorazu. Estudio místico de su vida* (Arantzazun, 1950-1951), bi liburutan. (LIB II: 60).

(11) Ez dakit ba ote genuen beste bildumarik, Joannateguy' ren bi liburuez kanpora: *Ehunbat Sainduen bicitcea* (1876) eta *Sainduen bicitcea* (1890, Ilbeltz Apirila bakarrik). (LIB I: 123).

b- Iruzkin edo hizkuntza mailako oharren bat zein orrialderi dagokion adierazteko

(12) Honako beste ohar hau hizkuntzari dagokio. Ubillosez ari dela (151gn. orrialdean) dio A. Villasantek: (LIB II: 66).

(13) Harizmendik (91 gn. or. hemen) -ino bukaera erabiltzeak ez du gauza handirik esan nahi, beste hainbeste egiten baitu, esaterako, Axularrek. (LIB II: 67).

c- Lanen batera igortzeko, enuntziatzaileak esandakoa egiaztatzeko

(14) Eta Islandiako bazterretan 1600 inguruan entzuten zuten euskara (ikus N. G. H. Deen, *Glossaria duo Vasco-Islandica*, Amsterdam, 1937), gipuzkoarrak ere han gehiegixko nabarmendu zirela dakigularik, Lapurdikoa zen, dudarik gabe. (LIB II: 57).

(15) Hemen aipatu nuen *Orbelak*-en ondoren (ikus iazko EGAN, 99-100 orrialdeetan), laster irten da Arantzibia-ren bigarren olerki liburua. (LIB II: 143).

d- Edizio kritikoetan ohar filologikoak egiteko

(16) Xenpelarren bertsoetan zenbait huts, edo huts diruditenak behintzat —eta barka, oker bana-bil—, ageri dira. Hona hemen batzu: zortzi konfiteruak (25 or., zortzi konfitero ta?), Lonjinos' ek auxe zion (28 or., au zion), ez al-dakiken (31 or.) ez al-akiken-en orde (hurrengo etzala lizentzi entzun izan dut), abillidade gutxi dedala/ ez esan iñori (32, daukanik behar luke), ezur igarrek austen zailla duk pixka bat beheraxeago (zaillak ttuk, zailla'ituk), Ni ezazu ibiltzen (35, enazu) (...) (LIB I: 107).

4. Itzulpenak. Esate baterako, erdarazko jatorrizko tituluaren ondoan zehazteko gure artean zein izenbururekin merkaturatu duten filma.

(17) Hoen artean leku berezia merezi du eskuarki THE PRODIGAL («El hijo pródigo») delakoak, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. (ZIN: 189).

(18) Beste burutik hastekotan, Elia Kazan' en EAST OF EDEN («Al este del Edén») aipa dezagun aurrenik. (ZIN: 189).

Joera horiek nabarmentzen zaizkio eta horietan guztietan ikus daiteke haustura mailaren adierazlea ere badela parentesia.

4.1.2. Marrak

Oro har, honako joerak atzeman daitezke Mitxelenaren luman:

Estilo zuzenaren adierazlea den enuntziatio-markoa aditzera ematen duenean, nagusiki marretara jotzen du (% 70,37).

(19) «Harrigarria da —**dio, gutxi gorabehera, maiz aipatzen dudan Donostiako kritiko erne eta trebe batek**— zein zuzen dabilen film hau gertatutakoen ondoan, zein zehazkiro biztu duen Douglas Sirk'ek aldi joana. (ZIN: 142).

(20) «Azkenean —**besteren hitzak hartuko ditugu ahoan**—, ikusia zegoanez, Ben Trane zintzoak hiltzen du Joseph Erin bihurria. (ZIN: 143).

Bada, hala ere, komen artean (% 18,51) nahiz parentesien artean (% 11,11) inguratzen duenik:

(21) Badugu denok, **esaten digu Cayattek**, bai gerok ere, zer ikusirik auzi horretan. (ZIN:138-139).

(22) Hauek erdaraz agertzen dira lehenbizi (**erdara zuzenean, dio egileak**), euskal erdaraz gero (erdal hitzak euskal ordenan antolatua) eta euskaraz azkenik. (LIB I:98).

Beste horrenbeste esan dezakegu besteren hitzak zuzen-zuzenean edo dauden-daudenean oinarrizko enuntziatuan tartekatzen dituen enuntziatu parentetikoez ere. Guztiak marren artean edo parentesien artean tartekatzen ditu.

(23) Eta aldamenekoaren oihuak belarran ditugula, nola amets egin, «Cinemascope» —«**mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena**»— berriarekin ere? (ZIN: 129).

(24) Eta hainbeste esaera gogoangarrik («**koldarra ehun bider hiltzen da; bihoztunak ordea ez du heriotza behin baino dastatzen**») gehiago merezi zuen. (ZIN:127).

Goiko adibide horiek, eta, oro har, corpuseko adibideek erakusten digutenez, bada, estilo zuzeneko diskurtsoa aditzera emateko ez du beti eta ezinbestean marretara jotzen. Ildo berezik, besteren hitzak diren-direnean bere diskurtsoan tartekatu nahi dituenen, kakotxez gain, marretara (% 63,63) nahiz parentesietara ere (% 36,36) jo ohi du.

Aditza daramaten A tipoko enuntziatu parentetiko gehienak (% 65,33) marren artean inguratzen ditu; % 22,66 koma artean eta % 12 parentesien artean. Modalitate-aldaketa alde batera utzi dugu, eredu horretan ia erabat parentesiak erabiltzen dituela ikusi baitugu.

(25) Gerok ere —**zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian**— ez ditugu gogo gaiztoz ikusi (ZIN:160).

(26) Nire begiak behintzat, **zorrotzagoak ez dakit**, ez ziratekeen konturatuko, alde zurretik jakin ez banu. (LIB I:84).

Aditzik gabeko enuntziatu parentetikoetan ere marrak erabiltzeko joera du, bai aposizioen araberakoetan bai halakoak ez direnetan. Komaz ere baliatzen da aposizioen araberakoak adi-

tzera emateko (% 34,88), baina (ia) inoiz ez (% 0,97) marka morfologiko bera ez daramatenak aditzera emateko. Beraz, hor ere ikus daiteke zenbat eta E1 eta E2ren arteko haustura txikiagoa izan (koherentziazko harremana kohesio-baliabidez indartua baitago), bi komen erabilera handiagoa dela.

(27) Nerau hizkuntzak irakasten zerbait —**ez gehiegi, beharbada**— aritua naiz eta asko ezagutzen ditut eginkizun horretan langile trebeak direnak. (LIB II:63).

(28) Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak —**txarlotkeriak**—, berebizikoak badira ere. (ZIN:136).

(29) Jaiotza harrigarriak izaten dira noizean behin, **oso noizean behin**, mundu honetan, Juan Ramón Jiménez'en ume honena bezalakoak. (LIB I: 42).

4.1.3. Komak

Modalizazio-aldaketa dakarren enuntziatu parentetikoa inoiz ez du koma artean inguratzen. Alegia, noizentzakoari hizkuntza mailako oharren bat edo egin nahi dionean, nahiz orrialderen bat begiratzera igorri nahi duenean inoiz ez du koma pareaz egiten.

Besteren hitzak zuzenean aditzera eman behar dituzenean ez du koma pareta erabiltzen, haustura handia baitago; izan ere, bi enuntziatzaile ditugu, edo, hobeto esan, esatariaren eta enuntziatzailearen arteko bikoizketa gertatzen da.

Aditzik gabeko aposizioen arabeko enuntziatuetan koma parearen erabilera askoz handiagoa da aposizioaren arabekoak ez direnetan baino, haietan formalki deklinabide kasu bera errepikatzen baita.

4.2. B TIPOA

B TIPOA	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
Modalitate-aldaketa*	1	9	4	14
ETA buruan daramatenak	79	49	5	133
EDO buruan daramatenak	16	12	4	32
Gainerako testu antolatzailearen bat dutenak	57	50	10	117
GUZTIRA	153	120	23	296
GUZTIRA % ZENBAT	% 51,69	% 40,54	% 7,77	% 100

*. Adibide hauek modalitate-aldaketaz gain antolatzailearen bat daramatenez gero, dagokion antolatzailearen multzoan sartu ditugu.

E1 eta E2 enuntziatuen arteko koherentziazko harremana kohesio-baliabidez sendotuta dagoenez gero, puntuazio-marketan ere eragina duelakoan gaude: adibiderik gehienak marra

artean eta koma artean agertuko baitira. Parentesiez gutxiago baliatuko da. Tipo honetan *eta* eta *edo* kohesio baliabideekin zer gertatzen den izango dugu hizpide, baina gainerako antolazaildeekin hartzen duen joera ere aipatuko dugu.

4.2.1. *Eta* buruan daramaten enuntziatu parentetiko gehienak koma artean (% 59,39) edo marra artean (% 36,84) inguratzen ditu; askoz gutxiagotan parentesien artean (% 3,75).

	Komak	Marrak	Parentesiak	Guztira
Aditz jokatua duen <i>eta</i> bidezko enuntziatu parentetikoa	51	26	3	80
Aditzik gabeko <i>eta</i> bidezko enuntziatu parentetikoa	28	23	2	53
GUZTIRA	79	49	5	133
GUZTIRA % ZENBAT	% 59,40	% 36,84	% 3,76	% 100

Datuei erreparatuz ikus dezakegu aditz jokatua duten *eta* bidezko enuntziatu parentetikoaren erdia baino gehiago (% 63,75) koma artean tartekatuta duteela, eta (% 32,5) marren artean. Parentesien artekoak oso gutxi dira (% 3,75).

Aditzik gabeko enuntziatuetan, berriz, ez dago alde nabarmenik komen (% 52,83) eta marren (% 43,39) artean; hau da, biak antzera darabiltza. Ez dirudi, bada, irizpide morfosintaktikoak erabakitzen duenik ikurren aukera. Ikusi bestela ondorengo adibideak⁹:

1. Subjektuari osagai bat emendatzerakoan

(30) Soinua, **eta harekin batera hitza**, agertu zenean zineman, lehengo mutuan iraun zuen Charlotek. (ZIN, 136).

(31) Japonen eta hemen gizona —**eta emakumea**— izukaitz baino bildurriago, prestu baino berekoiago, bihotz-zabal baino zitalago dela, alegia. (ZIN: 130).

2. Mintzagaiaren esparrua zabaltzeko eginkizunean

(32) Baina zineman, **eta gizartean ere sarri**, gehiago balio du itxurak izanak baino. (ZIN: 163).

(33) Gure gorputz-arimak, gorosti makilaz bezala astintzea ez da agian zinematik —**eta arteak erabat**— mendera lezakeen helbururik gorena. (ZIN: 174).

9. Erreparatu ondorengo adibide hauei ere:

Ez, ordea, iguzki aldekoek, **eta neroni horien artean**, batzuetan ak eta besteetan ek-ka ari natzaizue hemen. (LIB I: 70).

Guztioi —**eta neroni aurrenik**— izurtzen zaizkigu zenbati huts baztertuz gero, egileek poesi-prosarako duten joeran daukela deritzat itzulpen honen alde txarrenak. (LIB I: 85).

3. Aditz-aldaketa

Enuntziatu parentetikoko aditzek, adizkiek (E2) *ez* diete beti eusten oinarrizko enuntziatu-ko (E1) aditzen, adizkien ezaugarri morfologikoei. Aldaketa horietan oin hartuko dugu egiaz-tatzeko testuinguru sintaktiko bertsuan ere puntuazio-ikurrak txandakatzen dituela; hau da, zein bata zein bestea darabiltzala:

a) E1 oinarrizko enuntziatu baldintzari *indikati*boko¹⁰ adizkia gauzatua duen E2 enuntziatu tartekatzean:

(34) Erraztasunak ezer galdu *badu* hemen edo han, **eta euskaraz tutik ez dakien ikaslea daukat gogoan**, ugaritasunak eta aberastasunak irabazi dute. (LIB II: 68).

(35) *Illiada* inork itzuli nahi *badu* —**eta izango da egun edo bihar egiteko larri horri ekingo dion euskaldun ausarten bat**—, aurkituko du laguntza Aita Barandiaranek egin duen lan izugarrian. (LIB I: 71).

b) E1 oinarrizko enuntziatu ahalezko adizkia izanik (*Ke*-dun adizkia izanik), indikati**bo**ko adizkia gauzatua duen E2 enuntziatu parentetikoa tartekatzean:

(36) Esango *nuke*, **eta asko esatea da**, hau dela higuigarriena amerikanoek Bibliarekin, gizon indartsu eta emakume erdi-biluxiekin, sortzen dituzten saltsa koipetsu horietan guztietan. (ZIN: 189).

(37) Neronek ikus *dezakedanez* —**eta ez naiz nor horrelako auzietan mintzatzeko**—, ederki tajua du gaia, lau kapitulutan berezia, eta harira doa beti egilea, hitz alferrik gabe. (LIB II: 71).

c) E1eko aditza indikati**bo**koa izanik, E2 ahalezkoa (*Ke*-dun adizkia) denean:

(38) Esanak oroitarazten dit hor daudela, Oteizak oldar bizian eraso dien etsaien artean, «Urkixotarrak» direlakoak ere: badirudi, gainera, **eta ez ninduke horrexek minduko**, neure buru tristea ez dabilela horiengandik urruti. (LIB II: 118).

(39) Dakidanez —**eta poztuko ninduke bizi**ro oker nagoela jakiteak—, euskal literatura guztian behin agertzen da adizki hori, Garibayk XVI. gn. Mendean jaso zuen esaera batean (LIB I: 77).

d) Tenpus-aldaketa: E1 iraganaldian eta E2 orainaldian:

(40) Nahitaezkoa *zen*, **eta honelaxe ikusi du begi zorrotzez egileak**, euskal idazleez gainera —euskaraz mintzatu direnez gainera, alegia—, gure arteko erdal idazleez mintzatzeari, gure hizkuntzari dagozkion lanak ondu dituzten neurrian behintzat, eta are erbesteko euskalariez, zahar eta oraingoez. (LIB II: 65).

10. Euskaltzaindiak EGLU II-n adizkien forma kontuan izanik, adizkien izendapena aldatu egin bazuen ere, azalpenak emateko erosoagoa gertatzen zaigu *indikati*boaz, *baldintz*az, *subjunt*iboaz nahiz *ahalez*koaz hitz egitea. Jakin badakigu indikati**bo** oraina, esan ordez, *izan*/**edun-en orainaldia* izendatu beharko genukeela.

(41) Gorputz *geneukan* Mike Todd (**eta ez dakit hemengo Cervantes-zale porrokaturen arao-biraok ez ote duten horretan parterik izan**) berak eragin zuen izena bezain kostu handiko film hau aurkeztu digutenean. (ZIN: 181).

Azkenengo adibide horretan, gainerakoetan *ez bezala*, alternantzia *ez da* koma parearen eta marren artean gertatzen, marren eta parentesien artean baizik eta, beraz, puntuazio-marken arteko aldea handiagoa¹¹ da. Baina garbi geratzen da *eta* buruan daramaten enuntziatu parentetikoetan joera nagusia komen artean eta (gutxiagotan) marren artean adieraztea bada ere, maiz puntuazio-marka horiek bata bestearen tokian ager daitezkeela.

4.2.2. *Edo* buruan daramatenak ere gehienak komen artean (% 50) edo marren artean (% 37,5) adierazten ditu. Gutxiagotan parentesien artean (% 12,5).

(42) Horko lagunen buru hausteeke badute gerok ditugunen, **edo izan genitzakeenen**, eitea. (ZIN: 149).

(43) Eta gure arimaren eguneroko —**edo asteroko**— ogia hori dugunez gero, hemen ere aterpe txiki bat, narrasa bada ere, utzi nahi genioke. (ZIN: 123)

(44) Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I:71)

Aditzean aldaketa gertatzen den adibideetan ere ez du marka tipografiko jakin baterako joera adierazten:

(45) Euskarak erdaraz esan ez diren, **edo hain ongi adierazi ez diren**, gogoeta eta bihotzondokoei bide emanaz bakarrik jaso dezake burua, lehen, orain eta beti. (LIB I: 58).

(46) Negarrez gaude beti, euskal irakurgai gutxi ditugula eta, eta ditugun ederrak ere ezin ditugu, **edo ez ditugu nahi**, irakurri. (LIB I: 71).

(47) Gizon izanik, kaskarin xamarra da, eta ez du beti uste dugun —**edo nahi genukeen**— bezala erantzuten. (LIB I: 57).

4.2.3. Gainerako testu-antolatzailearen bat daramanean ere, gehienetan marren (% 48,7) eta komen (% 42,73) aldeko joera antzematen da. Gutxiagotan agertzen da parentesia (% 8,54). Ekar ditzagun batzuk erakusgarri.

— *Hobeto esan* antolatzailearekin aurretik esandakoa birformulatzean:

(48) Elbar batek, **hobeto esan elbarritu batek**, ez du leihoa beste ikuskizunik: leihotik ikusten duen etxartea, alegia. (ZIN: 144).

11. Graduazioari dagokionez, puntuazio arinena koma pareari dagokio eta marra parearen eta parentesien artean Garziak (2012) esango digu ez dagoela alderik: «parentesien eta marren arteko aldea ez dago guttiz finkaturik berez. Guk hemen proposatzen dugun ereduaren, oro har, marra-parea da tarteki-koma parearen hurrengo aukera, eta parentesia, berriz, marra parearen hurrengo (edo aparteagoko zerbait adieraztekoa)» (Garzia 2012:106).

(49) Goikoetxea jaunak, askok dakigunez, begi zorrotzez begiratu ohi dio darabilgun —**hobeto esan, darabilten**— euskal neurkerari: ez zaio ez egokia iruditzen ez jatorra. (LIB II: 107).

— *Esate baterako / esaterako* antolatzaileekin adibideak ematerakoan:

(50) Gogora datozkigunak ez dira liburuak edo, gutxienez (*Beribilez, esaterako*), Euskalerritik edo Euskalerrriaren aldamenetik ez dira aldatzen. (LIB II: 102).

(51) Nere begi-adimenak ez dira zenbaitenak bezain zorrotzak eta ez dut esango film honetako sinbolo guztien funts izkutua —**sorgin gaztearena, esaterako**— ezagutu dudanik. (ZIN: 198).

(52) Hark erakutsi baitzigun —**Aitorkizunetarako hamargarren jardun horretan, esaterako**— gure barrengo zoko ilunak aztertzen eta ezagutzen. (LIB I: 75).

— *Batez ere* antolatzailearekin zerbait nabarmendu nahi duenean:

(53) Sarreraz gainera, zati hauexek ditu: I eta II atzizkiak, III aditza (**laguntzailea batez ere**), IV elkarrizketak eta V erdal-euskal eta euskal-erdal hiztegia. (LIB I: 109).

(54) Trebe baino trebeagoa izan da beti hitz berriak sortzeko —**hitz elkartuak batez ere**— edota hitz arrunt ezagunak adiera berri batera egokitzeko. (LIB I: 76).

— *Alegia* antolatzailearekin aurretik esandakoa birformulatzen denean:

(55) Adizki jator baten ordeztu, **natzaio-ren ordeztu alegia**, bi erabiltzen ditu, euskal literaturan sarre-
rarik izan ez dutenak. (LIB I: 71).

(56) Azkenean, etxean berriz —**Londresen alegia**—, zertxobait aldatu ikusten dugu David Ni-
ven'en eskuetan dagoen Phileas Fogg-en garaita eta erorikoa. (ZIN: 182).

(57) Nor banitz ere, ez nintzateke sartuko, nere gogoz behintzat, horrelako listor-kabian, harako
Paris (**ez Frantziakoa, alegia**) gizarajo hura bezala. (ZIN: 158).

— *Behintzat / bederen / behinik behin* antolatzaileekin:

Antolatzaile hauekin ere bi puntuazio-markaren aldeko joera da nagusi: koma parearen eta marren aldekoa, hain zuzen. Bien arteko aldea, ordea, ez zaigu batere argi gelditzen. Horren adierazgarri, hona hemen adibide bera batean marren artean eta bestean koma artean:

(58) Ez dago lanaren gaitza goraiatu beharrik, ongi baitaki norainokoa den edozein hizkuntzatan, **axaletik bederen**, Aitorkizunak urratu dituenak. (LIB I: 75).

(59) Gure egunotakoa batez ere, maliziaz josia baitago hainbeste eta hainbeste irakurgai —**axaletik bederen**— miratu ondoren. (LIB I: 57).

Joerarik nabarmenena, ordea, komen artean kokatzea da (% 75,67). Hala ere, bada adibi-
derik marren artean (% 24,32). Inoiz ez du parentesien artean kokatzen.

(60) Ez da erraz, **neretzat behintzat**, honelako poema batez neurritzko iritzirik ematea: prosaz
ondua izateak ez dit batere lana arintzen. (LIB II: 141).

(61) Espainian —**zineman behintzat**— «betiko triangeluak» lau alde izaten ditu: senarra, emaztea, senarra ez dena eta apaiza. (ZIN: 133).

— *Edo gutxienez, edo behintzat, edo hobeto esan, edo gutxienez behintzat, edo behinik behin* antolatzaileekin joera ezberdinak antzeman ditzakegu.

Hiru marka tipografikoak darabiltza:

(62) Ez ditu, ordea, inork beharbada Orwell'ek adina ezagutu arrisku-beldur horiek, **edo behintzat ez ditu inork horren argiro azaldu**. (ZIN: 175).

(63) Bata eta bestea, gainera, ezinegonak, **edo hobeto esan larriminak**, darabiltza. (LIB I: 136).

(64) Hizkuntza bat ikasteko —**edo ikasten hasteko behinik behin**— bide eroso eskeintzen duten libururik gehienak motz gelditu ohi dira beren egitekoan, hizkuntzak nekerik eta gogo bizirik gabe ezin ikas daitezkeelako noski. (LIB I: 109).

(65) Literatur euskararen batasunerako bide berria edo eskeintzen du aurrenik, eta gure artean mai-zegi ikusten ez den eleberrri saioa —**edo eleberrri moduan antolaturikako haurtzaroko oroitzapenak behintzat**— besteaz gainera. (LIB II: 93).

(66) herri literatura batetik (bertsolariak, Zuberoako pastoralak eta), hor hemenka aipatzen baditu ere, eta egungo egunean (**edo behintzat liburua osatu zuenean**) bizi diren euskal idazleak. (LIB II: 65).

4.3. C TIPOA

Pentsatzekoa da, bada, goian aipatu dugun E1 eta E2 enuntziatuen arteko haustura-mailaren eta puntuazio-marken arteko harremana kontuan izanik tipo honetako enuntziatu parentetiko gehienak koma artean adieraziko dituela. Tipo honi dagozkio E1 eta E2 enuntziatuen artean harreman sintaktikorik egon ez arren, marka sintaktiko formala daramaten enuntziatu parentetikoak, eta horrek, formalki behintzat, lotura handiagoa erakusten du.

Corpuseko datuek uste hori indartu besterik ez dute egiten: koma pareari esker, % 72,47 enuntziatu parentetiko ematen ditu aditzera; marrei esker, % 23,85, eta % 3,66an bakarrik baliatzen da parentesiez.

(67) Ez dut nik esango, **harrokeriaz mintzatzea litzateke eta**, euskal arima zer-nolako den aditzera eman duenik. (LIB I: 64)

(68) Egiazko lirika, izen horren duin dena alegia —**ez baita aski hitzak lerro-lerro banatzea**—, da noski giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena. (LIB I: 63).

(69) Behin edo behin, egia da, Izpiritu Santuaren prozesioaz ordu t'erdiz mintzatu beharrean aurkitu izan naiz (**irakastea debekatua badaukagu ere, ikastera behartu egiten baikeiztute**), baina geroztik hona jakintza hau baztertuxe eduki dut. (LIB I:96).

5. Ondorio orotarikoak

1-. Puntuazioa osoa ez da, ortografia ez bezala, guztientzako baliagarri den araudi hertsia batean biltzekoa (Cassany 1993, 1999, 2007, Arrieta 1998, Figueras 2001) eta bigarren mailako puntuazioa are gutxiago.

Puntuazio-marken, bigarren mailako puntuazio-marken hautua eta erabilera idazlearen esku, idazlearen sortzailetasunaren, komunikatzeko gogoaren, bilaketa estilistikoaren... esku bide dago. Ikusi besterik ez dago etengabe aipatzen joan garen Mitxelenaren puntuazio-marken txandakatze eta aldizkatzea.

Aukerako izate horrek, hain zuzen, zaildu egin du nolabait gure lana; alegia, komen, marren eta parentesien arteko erabilera zerk eta nola arautzen zuen aztertu eta irizpideak finkatzea.

2-. Dena dela, eta zailtasunak zailtasun, testuaren interpretazioa zaintzeko eta babesteko ezinbesteko baliabidea ere gertatzen zaio idazleari. Puntuazioa, alde horretatik, esatariak berak esan nahi duena, berak egokien iritzi dion moduan adierazi ahal izateko oinarrizko baliabidea dela esango genuke.

3-. Bigarren mailako puntuazio-markak (azterkizun izan ditugun hirurak), oro har, esatariak norentzakoari bidaltzen dizkion instrukzioak, jarraibideak edo argibideak¹² dira. Norentzakoak egiten duen deskodetze-prozesua bideratzen laguntzeko, esatariak intentzio osoz ezartzen dituen marken edo ikurren kodea da. Honenbestez, komunikazio-estrategia orokor baten zerbitzura dago; mezuaren interpretazioa kontrolatzera bideratuta dagoen komunikazio-estrategia orokorrako baten zerbitzura.

Izan ere, ikur grafiko hauei esker inguratuta dagoen enuntziatu parentetikoak, oro har, diskurtsoa edo testua nola interpretatu behar dugun adierazten digu; helburu horretara bideratutako instrukzioak ematen dizkigu. Baina bigarren mailako puntuazio-ikurrek ere informazioa ematen digute. Esana baitugu enuntziatu parentetikoak ezin ditugula (testu idatzietan, bederen) euren ingurutzaila edo mugatzaila diren bigarren graduko ikur hauetatik at ikusi eta aztertu. Batak bestearen zerbitzura egiten du lan.

4-. Arau zehatzez, bada, ezin dezakegu hitz egin, baina bai enuntziatu parentetikoak inguratzeko edo mugatzeko nagusi den (edo diren) joerez. Hori aztertzeko enuntziatu parentetiko tipoetan eta horien osuera morfosintaktikoan oinarritu gara, eta horien ondorioa da ekarri dugun Koldo Mitxelenaren jokamoldea.

12. Ez bakarrak, hizkuntzek hainbat eta hainbat baliabide, bitarteko edo estrategia baitituzte beren mezuaren interpretazioa bideratzeko. Baliabide edo estrategia horietako bar puntuazioak berak eskaintzen du; izan ere, puntuazioa testuaren interpretazioa bideratzeko mekanismo laguntzaila eragingarria dela uste dugu.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- ALBERDI, X. (2008). *Oinarrizko gramatika*. Donostia: Elkar, Ikastolen Elkartea.
- ALBERDI, X., Sarasola, I. (2001). *Euskal estilo-libururantz*. Bilbo: EHU.
- ARAKAMA, J. M., Arrieta, A., Lozano, J., Robles, J., Urrutia, R.M. (2005). «Puntuazio zeinuei dagozkien tarreak», *Administrazioa euskaraz* 49:18 or.
- ARRIETA, L. (1997). «Puntuazioa: ulergarritasunaren aldeko apustua», *Administrazioa euskaraz* 17:19 or.
- AZPEITIA, A. (2010). *Koldo Mitxelenaaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak*. Doktore tesi argitaratu gabea.
- AZPEITIA, A. (2012). *Koldo Mitxelenaaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak*. Bilbo: Euskaltzaindia, *Iker* 29.
- BERRIA (2006). *Estilo-liburua*. Donostia: Berria.
- CALSAMIGLIA, B., Tusón, H. (1999). *Las cosas del decir. Manual de análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.
- CASSANY, D. (1987). *Descriure escriure. Com s'aprèn a escriure*. Bartzelona: Empúries [1988, *Describir el escribir: Cómo se aprende a escribir*. Bartzelona: Paidós].
- (1993). *La cuina de l'escriptura*. Bartzelona: Empúries [(1995). *La cocina de la escritura*. Bartzelona: Anagrama].
- (1999). «Puntuación: investigaciones, concepciones y didáctica», *Letras* 59, 21-54. Revista CILLAB [Centro de investigaciones lingüísticas y literarias Andrés Bello de la UPEL-Caracas].
- (2006). *Esmolar l'eina. Guia de redacció per a professionals*. Bartzelona: Empúries [(2007). *Afilar el lapicero*. Bartzelona: Anagrama].
- CATACH, N. (1980). «La punctuation», *Langue française*. Paris: Larousse [ale osoa].
- (1994). *La punctuation (Histoire et système)*. Paris: Presses Universitaires de France.
- ESCANDELL, M. V. (1993). *Introducción a la pragmática*. Bartzelona: Anthropos.
- (2005). *La comunicación*. Madril: Gredos.
- ESNAL, P., ZUBIMENDI, J. R. (1993). *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzza.
- EUSKALDUNON EGUNKARIA (1992, 1995). *Estilo liburua*. Donostia: Egunkaria.
- EZEIZA, J., LEKUONA, M., ALTUNA, E. (1995). *Esalditik testura (euskaraz trebatzen)*. Donostia: Gaiak.
- FIGUERAS, C. (1999). «La semántica procedimental de la puntuación», *Especulo* 12. <http://www.ucm.es/info/especulo/numero12/puntuac.html>

- (2001). *Pragmática de la puntuación*. Barcelona: Ediciones Universitarias de Barcelona.
- FUENTE GONZÁLEZ, M. A. de la (2004). «Problemas de puntuación en *La fiesta del chivo*, de Mario Vargas Llosa», *Espéculo* 28. <http://www.ucm.es/info/especulo/numero28punc.html>.
- (2005). «La coordinación en inciso», *Espéculo* 29. <http://www.ucm.es/info/especulo/numero32/adicion.html>.
- (2006). «La adición en inciso: sus formas y puntuación», *Espéculo* 32. <http://www.ucm.es/info/especulo/numero32punc.html>.
- FUENTES RODRIGUEZ, C. (2007). *Sintaxis del enunciado: los complementos periféricos*. Madrid: Arco/libros.
- GARZIA, J. (1996). «Puntuazioaren sintomatik sintaxiaren gaitzera», *Administrazioa euskaraz* 13:19.
- (1997). *Joskera lantegi*. Gasteiz: IVAP-HAEE.
- (2012). *Puntuazioa egoki erabiltzeko gida: oinarriak, jarraibideak eta aholkuak*. Ikasmaterialen Aholku Batzordea (2012-06-04) (argitaratu gabe).
- HAEE-IVAP (2005). *IVAPeko estilo-liburua*. Gasteiz: HAEE-IVAP.
- KERBRAT-ORECCHIONI, C. (1986). *La Enunciación. De la subjetividad en el lenguaje*. Buenos Aires: Hachette.
- LINARES, M. (1974). *La puntuación correcta*. Avila: Talleres El diario de Avila, 1991.
- MITXELENA, K. (1968). «Euskararen batasun bideak» (= Ortografia), *Euskera* 13: 203-219 or.
- (1988). *MEIG I, II, III*. Donostia: Erein.
- ODRIOZOLA, J. C. (2005). «Puntuazioa gramatikagai», in Etxeberria, P., Knör H. (ed.). *Nerekin yaio non: Txillardegiri omenaldia*. *Iker* 17: 354-377 or.
- ONIEVA MORALES, M. J. (1992). *Nuevo método de ortografía*. Madril: Editorial Verbum.
- PEREZ GAZTELU, E., ZULAIKA, E., MUÑO A, I. (2011). «Puntu bat, bi puntu, hiru puntu... Puntuazioa Gipuzkoako gazteen eskola testuetan», *Ikastaria* 17: 155-207 or.
- PEREZ GAZTELU, E., ZULAIKA, E. (2012). *Idatziz komunikatu. Gazteak eskolan idazten*. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- ROQUE EGUZKITZA, I. (2008). «Puntuazioaren argi-ilunak». *Ikasmaterialak eta zuzentze-lana*. Udako Ikastaroa.
- (2009). «Tartekien antolaeraz eta puntuazioaz», *Administrazioa euskaraz* 64: 13-14 or.
- ZUBIMENDI, J. R. (2004). *Ortotipografia: estilo-liburuaren leben atala*. Gasteiz: Ikasmaterialen Aholku Batzordea-Eusko Jaurlaritzza. <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>.

Resumen

En este artículo se analizan los signos de puntuación de segundo nivel utilizados por Koldo Mitxelena para enmarcar los enunciados parentéticos, tan característicos de su prosa. Los signos analizados son las comas, las rayas (o guiones largos) y los paréntesis.

Hemos tomado como muestra de análisis las críticas o comentarios publicados por Mitxelena en vasco sobre libros y películas para observar si hay diferencias significativas en la elección de uno u otro signo de puntuación como elemento delimitador del enunciado. Hemos tratado de fijar los criterios que le impelen a optar por determinados signos.

A falta de reglas o leyes de obligado cumplimiento, se pueden observar tendencias significativas a la hora de fijar los límites gráficos de los enunciados parentéticos. La tipología de los enunciados parentéticos y su configuración morfosintáctica nos han proporcionado criterios pertinentes para reflejar de modo clarificador el uso de los signos de puntuación demarcadores que hace Koldo Mitxelena en su prosa crítica.

Résumé

Dans cet article, nous analysons les signes de ponctuation de second niveau utilisés par Koldo Mitxelena pour encadrer les énoncés parenthétiques, si caractéristiques de sa prose. Les signes analysés sont les virgules, les tirets et les parenthèses.

En guise d'échantillon pour notre analyse, nous avons choisi les critiques ou les commentaires publiés en basque par Mitxelena sur un certain nombre de livres et de films. Nous avons observé s'il existe des différences significatives dans le choix qu'il a fait des signes de ponctuation en tant qu'éléments délimitateurs de l'énoncé, afin de fixer les critères qui le poussent à choisir un signe plutôt qu'un autre.

Nous n'avons pas décelé des règles ou de lois précises, mais nous avons néanmoins constaté des tendances significatives au moment de fixer les limites graphiques des énoncés parenthétiques. La typologie de ces énoncés et leur configuration morpho-syntactique nous ont fourni des critères pertinents pour pouvoir décrire clairement les préférences de Koldo Mitxelena au moment d'utiliser dans sa prose critique les signes de ponctuation démarqueurs.

Abstract

This study analyzes the second-level punctuation marks used by Koldo Mitxelena to demarcate the parenthetical statements that are so characteristic of his prose. The punctuation marks examined are commas, dashes and parentheses.

As a sample for analysis, we have taken the criticism and commentaries on books and movies published by Mitxelena in Basque in order to determine whether there are significant differences in his selection of one type of punctuation or another as an element that demarcates the statement. We have also tried to determine the criteria that lead him to select one type of punctuation over another in any given case.

Rather than specific or strict rules, we observed significant tendencies in demarcating the borders of parenthetical statements. The typology of the parenthetical statements and their morphosyntactic configuration suggest pertinent criteria that reflect and clarify Mitxelena's use of punctuation in his critical prose.